



Ordua	Edukiak
08:45 - 09:00	Harrera eta dokumentazio banaketa.
09:00 - 09:10	Ongietorria eta jardunaldiaren aurkezpena. <ul style="list-style-type: none"> ● Aitor Bengoetxea Alkorta, UEUko zuzendaria. ● Ainhoa Latatu Nuñez, GOI Ikastegiko irakasle eta ikertzailea, UEUKidea.
09:10 - 09:50	Hezkuntza azalean; irakasgaiak transgresio. <ul style="list-style-type: none"> ● Nora Salbotx Alegria, Amaiurko eskolan maistra, Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza lantaldeko zuzendarikide eta Hikasitarra, Euskal Hezkuntzagintzan militante.
09:50 - 10:30	Irakasleen erantzukidetasun eta konpromiso soziala: subertsioa ardatz. <ul style="list-style-type: none"> ● Amaia Alberdi Ruiz de Alegria, HUIHEZIKo irakaslea eta Ikerlaria Mondragon Unibertsitatean (MU), UEUKidea, mugimendu feministako kidea.
10:30 - 11:30	Irakasleen rola arakatzen tailerra <ul style="list-style-type: none"> ● Eider Goiburua Moreno, GOI Ikastegiko irakasle eta ikertzailea, UEUKidea, Gizarte-psykologia, sexu-hezitzailea, formatzailea eta aholkularia hezikideta eta pedagogia feministetan. Mugimendu feministako kidea.
11:30 - 12:00	Atsedena.

12:00 - 14:30	Esperientzia pedagogiko transgresoreak Euskal Herrian. <ul style="list-style-type: none"> ● ADSIS Fundazioa, <i>Badugu zurekin batera egingo dugun hezkuntza bidea. Amaia Uranga Alzpurua</i> eta <i>Maitane Zaldibar Ibañez</i>, ADSIS Fundazioa, Lanbide Heziketako irakasleak. ● HARILKA, <i>intsumisioa gorpuzten. Ainhoa Calvo Maneiro</i> eta <i>Itsaso Garmendia Agirre</i>, Antigua-Luberri BHIko irakasleak eta Harrikakideak. ● <i>Azterketak euskaraz mugimendua. Eñaut Elosegi Onandia</i> eta <i>Julen Mujika Andonegi</i>, Manex Erdozaintzi Etxart kolegioko irakasleak (Seaska). ● <i>ikasleen ahalduntzea eta partehartzea. Maite Legarreta Iza</i>, Arratia BHIko irakaslea eta Zaindu maite Duzun Hori taldeko kidea. Dinamizazioa: Assumpta Ayerdi Olaizola , Sorginlore Gizarte Elkarte
14:30 - 16:00	Bazkaltzeko tartea. Bazkaria matrikularen barne dago.
16:00 - 17:30	bell hooksen "Transgresioa irakasgai" liburua irakurketa-saio kolektiboa. <ul style="list-style-type: none"> ● <i>Iratxe Retolaza Gutierrez</i>, GOI Ikastegiko irakaslea, Emagin elkartearen kidea, UEUKidea, Literatura irakaslea. Oharra: tailer honetan parte hartzeko, bell hooksen <i>Transgresioa irakasgai</i> (Katakarak, 2023) liburua irakurritza komeni da.
17:30 - 17:45	Itxiera eta agurra. <ul style="list-style-type: none"> ● Ainhoa Latatu Nuñez, GOI Ikastegiko irakasle eta ikertzailea, UEUKidea.

Hezkuntza azalean; irakasgaiak transgresio

eskerrak: UEU, GOI institutua, Katakarak, Amaia.
 emandako proposamenetik abiatuta nire gaurko asmoa bla, bla...

liburuaz

du ad. irakurri, leitu

Ikasi.
 Nil, 6 urte

Irudimenean abenturak bizitzea.
 Alejandra, 8 urte

Leitzea historia bat kontatzea da, baina hizkiekin.
Valentina, 6 urte.

1. "Hezkuntzan interesa duen orok leitu beharko luke liburu hau" Paulo **Freire**. Liburu hau leitzeko nahikoa arrazoi da bere horretan.

2. Zerk egiten du bada liburu hain interesgarri, beharrezko hezkuntzaren inguruko kezka duenarendako, feministendako, dena delako prozesu hezitzaile, parte hartzaile, militante eta, oro har, eraldatzaile komunitarioenganako kezka (edota praktika) duten lagunendako?

- **Zapaldu ororen pedagogia** bat planteatzen duela, ildo filosofiko eta kontzeptual bat ematen diguna baina baita praktikarako argia.
- Zergatik diogu zapaldu ororen pedagogia bat ekartzen duela? Freiretik abiatuta **feminismoa eta hezkuntza segregatuaren esperientzia gehitzen** dizkiolako hezkuntzaren tradizio kritikoari, marxistari eta iraultzaileari.
- **Irakastea esperientzia performatibotzat** jotzen duen heinean, teoriatik praktika transgresibo baterako estrategiak, esperientziaz oinarritzeko ildoak eta aski ongi frinkatutako pentsamendu oso bat ematen digulako. hooksek berak dioen gisan "ideien zirrara eta ikasteko grina" txertatzeko bulkada.

3. **Bi piezako puzzle** baten irudia datorkit etengabe hooks eta Freireren emari erraldoiaz ari garelarik. Garaikideak.

- Batetik, kontzientziazioaren (**kontzientziazioarena**) ideia erradikalean egiten dute bat lehenik eta behin; alegia, ideia hori zeinen arabera errealitatea bereganatzen dugunean zenbat eta kontzientziazio gehiago orduan eta sakonago ezagutu dugu inguratzen gaituen hori baina, gainera **intelektualismo hutsa gainditzen** duen proposamen batean, izan ere **etengabeko prozesu gisara** ulertzen baita, borobila, **ekintza-hausnarketa** binomioaren dialektizazioan oinarria duena.
- Bertzetik, hezkuntzaren teoria **marxista, erradikal, deskolonizatzaileei**, nolabait ere, falta zuten pieza ekarri dielako hooksek: feminismoa, **intersekzioak**, klasea eta arrazaren inguruko kritikari generoarena ekartzen dielako.

4. Akitzeko liburuaren hamaikagarren atalari aipamen egin nahiko nioke ere. Aunitzetan interseksionalitatean kanpoko erreferente izan ditugun horiei gutxiago aditu diegulako gai honi buruz eta gure testuinguruan berebiziko garrantzia eta erabateko zentralitate politikoa (ikus edozein egunetako berriak) daukalako, hizkuntzaren aferaz ari naiz.

- Hizkuntza erresistentziarako esparru bat dela dio eta (178. orrialdekoa leitu).
- Akitzen du erranez hizkuntzaren bitartez elkar ukitzen dugula... hunkitzen gaineratu genezake.
- Hor badakar liburuan behin baino gehiagotan jasotzen den Mendebaldeko pentsamolde dualaren kritika, burua eta gorputza banatzen dituen horrena, eta kritika egiteaz gain, erraten du gure osotasuna berreskuratzeko, buru-gorputzaren arteko mugak lausotzeko,

gure hizkuntza-esperientziak berreskuratzeko deia egiten digu gisa guztietako marjinatu eta zapalduoi.

- Hizkuntza hautsiaren aldarrikapena. Euskalkia vs. estandarraren eztabaida higatu, maiztu horri bertze toki batetik begiratzeko aukera bat ez ote dago hor?

Gurean irakurketa berezia izaten ahal dutenak...

gorputzaz

iz. gorputza

Burua mugitzeko*.

Fede, 7 urte

*Mendebaldeko pentsamolde dualaren biktima;)

Gizaki batena, tigre batena...gihar bat eta hainbat hezur.

Hektor, 8 urte

Adibidez zu. Zu zara gorputz bat.

Maria, 7 urte.

- hooks-ek feminismitik begiratuta problematizatzen du norberaren **esperientziaren materialtasunetik**, inork ez bezala, gorputzaren eta gorputzasunaren afera: **esperientzia kokagune pribilegiatu bat da ezagutzarako**.
- Hezkuntzaren gorputza eta burua/espirtua banatzeko saiakera historikoen aitzinean, salaketa bat bada, kontraerantzun bat, dioena **gorputza dela hezkuntza ekintza oren euskarri erreal, material eta sinbolikoa**.

Gorputzaren antropologia eta soziologiako apunte labur batzuk hemen, gaia kokatzen lagunduko digutelakoan:

- **Erasmoren** "Haurren maneren gizalegeaz"en ikusten dugu, Julia Varelaen azterketaren arabera, nola "normalizazio prozesu trinko bat ezartzen den" haurrengan.
- **Norbert Eliasek** pultsioen kodetze bati buruz solas egiten du: manera onen ikaskuntzaren bitartez identitate bat lortuko da gorputza menderatze mekanismoek zeharkatzearen ondorioz. Gainera, **kontraposiziozko gorputz bat** beharko du eta emanen du honek: baldarrarena, itsusiarena, herri xumearena, jende arruntarena.
- **Richard Sennet**-ek gai zinez interesgarri bat dakarkigu afera honen kariatara, are feminismitik problematizatuta: esparru **publiko eta pribatuak** definitzen, mugatzen, laguntzen dute gorputza den manikiak eta hizkuntzak, zeinua den heinean. Alegia, balegoke kanpora begirako molde "on" bat ez duela zertan bat egin beharrik zinez garen horrekin. Gure baitan gorputzutako publiko/pribatuaren ideia.
- **Goffman**-ek, gai honen kariatara dio "baliabide eszeniko hauek antzezteko gaitasunean bereizten dela burgesia langile-klasetik".

- **Foucault**-ek, **Bourdieu**-k eta enparauek botere harremanek gorputzak zeharkatzen dituztela sozializazio tresna ezberdinen bitartez, hortik ezbaian jarriko dute “molde zuzenaren” ideia, zeinen bitartez burgesia berriak norma unibertsal bilakatzen baititu bere bizitzeko eta egiteko moduak.
 - Foucaulten arabera diziplinatze hori kaserna, hiri, ospitale, familia eta eskolen bitartez eginen da, bertzeak bertze.
 - Bourdieuk *gorputzaren hexis*-az ari denean dio gorputzaren keran inposizioa errazagoa egiten dela begirada menderatzaile eta hegemonikoa ez denean ezagutzen, sumatzen, arbitrarioa denez kontuematen ez garenean, naturalizatu dugunean.

- XVIII. mendean sortzen da gaur egungo normatibitatearen araua, arau burgesa, orduko nobleziaren moldeen kontra eta herria-burgesia dikotomia sortzeko beharretik:

Ezartzen den menderakuntza berria aunitzez ere ezkutuago egonen da: denok berdinak gara legearen aitzinean, guztiok izaten ahal dugu botere eta prestigio posizio sozialak betetzeko nahia, arrakasta soziala lortzea gutako bakoitzaren esku baitago, gure ahalegin pertsonalaren eta gure gaitasunen esku. (J. Varela, 1984)

→ **Beraz, beregaintasun indibidualaren falazia fabrikatzeko eta gorputzaren bitartez kodetzeko, molde bat asmatzen da gorputzetik abiatu eta gorputzetan akituko dena aldi berean (estraktibismoaren eta esplotazioaren bidetik).**

- **hooks**-ek feminisмотik intersekzionaletik begiratu dio afera horri, guk dakigula inork ez bezala.
- Gorputzazuna, buru-gorputza banaezintasunaren ideiatik dator, gaurko sistemen objektibazio nahikeriaren salaketatik, feminismoaren eta bertze gisako mundu-ikuskeraz ez-mendebaldir zenbaitetik (budismoa, baita hein batean kristautasunaren soslai komunitaristatik) edan duelarik eta ondorio sakonak dituena hezkuntza jardueran, are gehiago askatasun praktika gisara jorratu nahi dugunongan.
- Ezabakeria, subjektibotasunen borratzea, neutral eta objetibotzat jotzea disziplinatze patriarkal zuri burgesa eta aldiz, hortik kanpo dagoen jarrera, hizkuntza, molde, fisikotasun eta gorputz oro ezabatu.
- Gorputzera itzuli behar bat aldarrikatzen du, historiako subjektu gisara solastatu gaitezen gure buruez, gure kolektibo eta identitateez, menderakuntzez.

→ **Tomás Aller**-ek biolentzia aztertu du eskola inguruetan, modu zabal batean definitzen du. Berak dio kanporako biolentzia bat badela, **norbere buruarenganako bertze bat (azaletik barnera dijoana), instituzional bat eta sozializazioarekin eta inguruarekin zerikusia duen 4. bat. Galdetzea dugu a) ea instituzional hori noizbait barnerako bilakatzen den b) zein biolentzia mota ematen edota sustatzen duen curriculumak berak, metodologiek, ezkutuko curriculumean gelditzen den mezu saldoa (erakundean azpian diren balioak -subyacentes- eta “artefaktu**

behagarriak" non ideologia agerian geratzen baiten: giro fisikoa, erabilitako hizkera, adierazpen artistikoak, beztitzeko moldeak, emozio adierazpenak...)

- Tratu ona, zaintzaren pedagogia (zaintza politizatuko duena)

finitzeko

- Irakasgaiak ditugu hezitzaile kritikook lanerako, beraz, mundua aldatzeko tresnarik behinena. Pentsatzea dagokigu nola bihurtu hauek askatasuna praktikatzeko eremu bat, nola egin gure gorputzak modu askatzaile batean zeharka ditzaten.
- Irakasgaiak erraten dut, gaitasunez solastatu gintezke, edota, botereari hizkuntzaren lehia egin behar badiogu, izendatzearen ekintza pribilejiatua lehiatuko badiogu hezkuntza patriarkal kapitalista kolonial honi, kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak. Edo aldarrikatu gaitasunak Euskal Curriculumak egiten zuen terminoetan.
- Transgresioa irakasgai paratuko badugu, irakasgaiak transgreditzea dagokigu.
- Eta edukiei bezalaxe komunikazioari. Hezkuntza eta Komunikazioa txanpon beraren bi alde dira. Komunikazioa ahozkoa zein ez-ahozkoa. Ez-ahozkoan kasu! Pertsona bakoitzaren ezaugarri fisikoei (kulturalak, erlijiosoa, politikoak, gaitasunekoak...barne) lotua dago baina baita erakundearen erritualei. Kinesikoa (gorputz mugimenduari loturikoa), proxemikoa (distantziakin eta kontaktu fisikoari lotutakoa) eta protesikoa (janzkera, beztitzeko era, ilearenak...). Hauek guztiak argiki kulturalak dira.
Hauek guztiak argiki kulturalak dira, gorputza dira, komunikazioa eta, beraz, hezkuntza.

Gaur eginen dugun gisako **meta** ariketa aunitz behar ditugu, hezigune orotan, hooks-en praktikaz hausnartu hooks-en moldeetan praktikatuz, izan dadila ernamuina gaurkoa.

" 'Transgresioa Irakasgai' lanak, idatzi dudan bertze edozein liburuk baino gehiago, lortu du iristea bere irakurle gisa imajinatu nituen audientzia anitzetara. Entsegu hauek balio izan zuten zubiak eraikitzeke eskola publikoetako maisu-maistra eta institutu eta unibertsitateetan ari garenen artean. Bai eta irakasle izateko formazio prozesuan zeuden ikasleekin ere. Liburu honek elkarrizketarako espazio berriei zabaldu zizkien ateak (...) Izan ere, lotuneak bilatzeko prest gaudenok, mugak gainditzea bilatzen dugunok, horixe bera egiten baitugu" (hooks, Teaching Community: A Pedagogy of Hope, 2003/2024)